Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

3339

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 7koa, Portu eta Itsas Gaietako zuzendariarena, «Donostiako portuko hegoaldeko kaiko harri-lubeta sendotzeko proiektua» eta «Donostiako portuko kontradikea babesteak Kontxako hondartzako itsasertzeko dinamikan izango duen eraginari buruzko azterlana» jendaurrera ateratzeko dena.

2007-2008 eta 2008-2009ko neguetan izandako ohiz kanpoko ekaitzen ondorioz, gainezkaldi garrantzitsuak gertatu ziren, eta horiek dezente kaltetu zituzten portu barruko instalazioak, batez ere kirol-dartsena; kalte materialak handiak izan ziren. Horregatik, hegoaldeko dikea babestea erabaki da, harri-lubetaren oinarrian harri-blokezko beste geruza bat jartzea, oraingoa oso higatua baitago eta ez baita nahikoa. Konponbide hori Donostiako portuko hegoaldeko kaiko harri-lubeta sendotzeko proiektuan zehaztu da.

Era berean, obra horrek inguruko itsasertzeko dinamikan izango dituen ondorioak ere analizatu behar dela pentsatu da, eta horretarako «Donostiako portuko kontradikea babesteak Kontxako hondartzako itsasertzeko dinamikan izango duen eraginari buruzko azterlana» idatzi da.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 16.1.e artikuluak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10.1.i artikuluari dagokionean xedatzen duenari jarraituz, Portu eta Itsas Gaietako zuzendariari dagokio portuetako obren eta instalazioen proiektuak idatzi eta onartzea, eta obrak egitea. Beraz, eta Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 45. artikuluan eta haren Erregelamendu Orokorraren 97. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioz,

EBATZI DU:

Jendaurrera ateratzea «Donostiako portuko hegoaldeko kaiko harri-lubeta sendotzeko proiektua» eta «Donostiako portuko kontradikea babesteak Kontxako hondartzako itsasertzeko dinamikan izango duen eraginari buruzko azterlana», Ebazpen hau Euskal

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

3339

RESOLUCIÓN de 7 de junio de 2010, del Director de Puertos y Asuntos Marítimos, por la que se somete a Información Pública el «Proyecto de refuerzo de la escollera del muelle sur del puerto de Donostia» y el «Estudio de impacto en la dinámica litoral de la playa de La Concha debido a la protección del contradique del puerto de Donostia».

Debido a los temporales extraordinarios acaecidos en los inviernos de 2007-2008 y 2008-2009 se produjeron rebases importantes que afectaron a las instalaciones interiores del puerto, sobre todo a la dársena deportiva provocando cuantiosos daños materiales. Por todo ello se ha decidido realizar una protección del dique sur mediante un manto de bloques sobre una base de escollera existente actualmente muy erosionada e insuficiente. Dicha solución técnica se define en el «Proyecto de refuerzo de la escollera del muelle sur del puerto de Donostia».

Así mismo, se ha estimado oportuno analizar los efectos que dicha obra podía causar en la dinámica litoral del entorno por lo que se ha elaborado el «Estudio de impacto en la dinámica litoral de la playa de La Concha debido a la protección del contradique del puerto de Donostia».

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 16.1.e del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Publicas y Transportes, en relación al artículo 10.1.i del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de determinación de funciones y áreas de actuación de los Departamentos, corresponde al Director de Puertos y Asuntos Marítimos la iniciativa de redacción y la aprobación de proyectos y ejecución de las obras e instalaciones portuarias. Y en virtud de lo previsto en el artículo 45 de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas, y en el artículo 97 de su Reglamento General, se somete al trámite de información pública.

RESUELVE:

Someter a información pública el «Proyecto de refuerzo de la escollera del muelle sur del puerto de Donostia» y el «Estudio de impacto en la dinámica litoral de la playa de La Concha debido a la protección del contradique del puerto de Donostia», al

Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hogei egun balioduneko epean, nahi duenak horiei buruzko alegazioak aurkez ditzan.

Epeak irauten duen bitartean eta bulego-orduetan, dokumentazioa edonork ikusteko moduan egongo da Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzan, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1ean (Lakua I, 7. solairua) eta Gipuzkoako Portuen Lurralde Zerbitzuan, Donostiako Kaiko pasealekuko 23an.

Guztiek horren berri izan dezaten jakinarazten da.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 7a.

Portu eta Itsas Gaietako zuzendaria,
FÉLIX JOAQUÍN ASENSIO ROBLES.

objeto de que durante el plazo de veinte días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, puedan formularse cuantas alegaciones se estimen oportunas, en relación con su contenido.

Durante el plazo fijado y en horas hábiles, podrá examinarse la documentación de referencia en la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos, Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, en Vitoria-Gasteiz, calle Donostia-San Sebastián n.º 1, planta 7 de lakua I, y en el Servicio Territorial de Puertos de Gipuzkoa sito en la calle Muelle n.º 23 de Donostia-San Sebastián.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de junio de 2010.

El Director de Puertos y Asuntos Marítimos,
FÉLIX JOAQUÍN ASENSIO ROBLES.